

**EHU**

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Universidad del País Vasco

# **SGIker 2025 Memoria**

**2026ko maiatza**

# EDUKIEN TAULA

ZUZENDARIAREN GUTUNA .....	3
SARRERA.....	5
GURE BALIO ESTRATEGIKOAK.....	6
SGIKER-AK ZENBAKITAN .....	7
AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK.....	11
LANKIDETZA SAREA.....	14
IKERKETAREN DINAMIZAZIOA .....	15
Gizartera irekiak.....	15
Alfabetatze zientifiko.....	15
Eskuratutako ezagutzaren hedapena .....	16
Asebetetzea.....	16
ESKERTZA .....	17

# ZUZENDARIAREN GUTUNA

Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerketako Zerbitzu Nagusien (SGIker) zuzendaria naizen aldetik, plazera da niretzat 2025 ekitaldiko memoria aurkeztea, urte bereziki esanguratsua izan baita gure zerbitzurako eta laguntzen dugun ikerketa komunitate osorako. Aldi honetan, antolakuntza, estrategia eta egitura aldaketak izan ditugu; horiei esker, gure unibertsitatean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sare (ZTBES) osoan aurrerapen zientifiko eta teknologikorako funtsezko azpiegitura gisa dugun posizioa indartu da.

Urtearen hasieran, errektoretza taldea aldatu zen, eta gertakari horrek erakunde gisa birdoitzeko prozesu natural bat dakar beti berarekin. Trantsizio horretan, SGIkerreko kideok erabakitasunez, soseguz eta erantzukizun zentzuz aritu gara lanean, zerbitzuak egonkor eta kalitate handiarekin jarrai zezan. Gure lehentasuna laguntza zientifiko eta tekniko irmoari eustea izan da —eta izango da—, orientazio estrategiko berrietara egokituz, gure funtsezko egitekoa alde batera utzi gabe.

EHUK abiarazitako plantilla finkatzeko ahalegin orokorraren barruan, SGIkerreko kideok geurea finkatzea lortu dugu. Aurrerapen horri esker, gure unitateen etorkizuna bermatzeaz gainera, aukera bikaina izan da taldeak berrantolatzeke, horien kohesioa indartzeko eta trinkoagoak, efizienteagoak eta eraginkoragoak bihurtzeko. Prozesu horri esker, kargak birbanatu, baliabideak optimizatu eta barneko lankidetzaren dinamikak indartu ditugu, ezinbesteko alderdiak baitira gero eta handiagoak diren eskaera zientifikoei aurre egiteko. SGIkerren benetako indargunea bertako langileak dira, eta aurrerapauso horrek ekarpen erabakigarria egiten dio teknikoki bikainak eta gizalegez konprometituak diren taldeak eraikitzen jarraitzeko.

Bereziki nabarmendu nahi dut Bizkaiko Animaliategiaren Zerbitzu Orokorrari emandako bultzada garrantzitsua. Zerbitzu horretako langileak finkatzea eta zerbitzua finkatzeko eta indartzeko egindako ahalegin izugarria erabakigarriak izan dira lehen mailako eskaintza zientifiko baterantz aurrera egiteko. Instalazio apartak ditugu, eta egindako lanak etorkizunari konfiantzaz begiratzeko aukera ematen digu, Animaliategia egungo ikerketa biomedikoko eskakizunen mailan jartzeko prest baikaude.

Urteroko legez, etengabeko hobekuntzak gidatu ditu gure ekintzak. Bokazio horrek gure funtzionamendua begirada kritikoarekin aztertzea, hobekuntza-aukerak identifikatzea eta gure taldeetako bakoitzaren onena ateratzea ahalbidetzen duten prozesuak aktibatzea dakar. 2025. urteak hori erakutsi du: abangoardiako ekipamendu zientifikoa martxan jartzea, protokoloak optimizatzea, lankidetzaren estrategikoak finkatzea eta prestakuntza espezializatuaren laguntza. Aurrera egiteko, gogoeta egin behar da, baina ausardia eta konpromiso kolektiboa ere behar dira.

# ZUZENDARIAREN GUTUNA

Hori guztia SGikerreko langileen profesionaltasunari, lanari eta egokitzeko gaitasunari esker egin ahal izan dugu. Eguneroko inplikazioak, aldaketei begira irekita egoteak eta lankidetzazko jarrerak ematen dute berme onena oraingo erronkei aurre egiteko eta etorkizuna eraikitzeko, zeinetan SGikerreko kideak ezinbesteko erreferentzia izaten jarraituko duten EHUren barruan eta kanpoan.

2026. urteari ilusio berrituaz begiratzen diogu, baita uste sendo honekin ere: zientzia eta teknologiaren euskal ekosisteman dugun zeregina indartzen jarraituko dugu, ikerketa komunitateari laguntzen giza baliabide eta baliabide tekniko onenekin, eta, gainera, gure funtsa zehazten duen konpromiso etiko eta profesionalari eutsiz.

UPV/EHU


Leioa, 2026ko maiatza

[Itziar Alkorta Calvo]

SGIker Ikerketako Zerbitzu Nagusien zuzendaria

EHU

# SARRERA



## Nor gara?

*«EHUko SGIker Ikerketako Zerbitzu Nagusiak eragile esanguratsua dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko ikerketa ekosisteman.*

*Azken belaunaldiako instalazioak, gaikuntza eta ikerketa komunitate eta bazkide industrialetarako zerbitzuak eskaintzen dituzte.*

*Adituak dituzte atxikita, gehienak doktoreen titulu akademikoa dutenak».*


SGIker Ikerketako Zerbitzu Nagusiak EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzan sartuta daude, eta I+G+b babesteko bokazio handia dute. Kualifikazio handiko teknikariak, gehienak doktoreak, eta azken belaunaldiako azpiegitura zientifiko-teknologikoak uztartzen dituzte.

Bere helburuen artean daude komunitate zientifiko-teknologikoari baliabideak ematea, hala nola saiakuntzak egitea, metodologia berriak garatzea, aholkularitza ematea eta prestakuntza eskaintzea, besteak beste, beharrezkoak baitira gizarteak eskatzen dituen erronkak gainditzeko.

Zerbitzuen lehentasunen artean daude ezagutza sortzeko bide globalak ezartzen laguntzea, baita teknologien konbinazioa sustatzea ere ikertzaileek eta teknologoek diziplina anitzeko erronkei hel diezaieten, garapen sozioekonomikoari laguntzen dion eragile gisa duen zeregina finkatuz.

# GURE BALIO ESTRATEGIKOAK

Langileen gaikuntza handia (doktoreak) eta etengabeko prestakuntza.



Egindako analisien eraginkortasuna eta kalitatea.



Ezagutza sortzea eta kualifikazio maila handiko prestakuntza beren espezialitatean.

Ezagutza zientifikoaren dinamizazioa eta sozializazioa.

Berdintasuna, merezimendua eta lehiakortasuna.

Nazioartekotzea.


Efizientzia baliabideen eta teknologiaren erabileran.

Bikaintasuna kudeaketan eta berrikuntza sozialean.



Gardentasuna kudeaketa prozeduretan.

# SGIKER-AK ZENBAKITAN



## PERTSONAK

### Erabiltzaileak

**EHUko 261**

ikertzaile nagusiri eman zaie arreta (% 21,3 igo da 2024aren aldean).

**18**

ikertzaile. Ikerbasque.

**9**

Ramón y Cajal ikertzaile (2024an baino 4 gehiago).

**2**

ERC proiektua aktibo duten 2 ikertzaile

### Plantilla

**53**

Staff teknikoko eta kudeaketako 53 pertsona (horietako 36 doktore mailakoak)

**465**

prestakuntza ordu jasota.

**16**

aholkulari eta kolaboratzaile iraunkor (Unibertsitateko irakasleak).

## GARAPEN ZIENTIFIKOA

**397** Finantzaketa publikoa duten 397 proiektu lehiakor babestu dira (32 nazioartekoak).

**94,26%** Argitalpenen % 94,26 eragin handiko aldizkarietan: Q1 (% 70,57) + Q2 (% 23,69), JCRren 2024ko datuen arabera.

**31,5%** Argitalpenen % 31,5ek munduko batezbestekoaren gainetik dagoen aipamenaren eraginaren indize normalizatua (CNCI) daukate, dokumentu mota, argitalpen data eta arloa kontuan hartuta.

**27,4%** Argitalpenen % 27,4k munduko batezbestekoaren gainetik dagoen kolaborazioko aipamenaren eraginaren indize normalizatua (CNCI Collab-CNCI) daukate, dokumentu mota, argitalpen data eta arloa kontuan hartuta.

**21** Finantzaketa pribatua duten 21 proiektu babestu dira.

**35,68%** Eragin handieneko (Q1) argitalpenen % 35,68 lehenengo dezilean daude.

**79,8%** Argitalpen zientifikoek % 79,8 irekian eskura daitezke (328), eta horietako gehienek bide berdea dute (gordailuak), urre kolorekoaren aurka (sarbide irekiko aldizkariak).

**61,31%** Artikuluen % 61,31k garapen jasangarrirako helburuei (GJH) egiten diete erreferentzia, bereziki hauei: Osasuna eta ongizatea; Klimaren aldeko ekintza; Energia irisgarria eta ez kutsagarria; Hiri eta komunitate jasangarriak; Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.

**411** argitalpen zientifiko Web Of Science (WOS) plataformako bilduma nagusian, SGIkerrek babestuta.

**3** argitalpen Highly Cited Paper dira, arlo, mota eta urte bereko paper guztien % 1ean kokatzen dituen aipamen bat lortu dutelako.

**59,85%** Argitalpenen % 59,85 nazioarteko lankidetzarekin egin dira, batez ere herrialde hauekin: Frantzia, Erresuma Batua, Portugal, Italia, Estatu Batuak, Herbehereak, Alemania eta Txina.

**9%** 2025eko argitalpenen % 9k metrika alternatiboak dituzte, hau da, sare sozialetan, blogetan, prentsako albisteetan, gobernu-txostenetan eta Wikipediako sarreretan aipatu dira.


**130** doktorego tesi babestu dira, horietako 94 nazioartekoak (% 73); kopuru hori UPV/EHU defendatutako nazioarteko tesien oso gainetik dago (% 47,5).

## 2025eko SGIKERen PATENTEAk

**4** EHUk 2025ean eskatu dituen  
4 patentek SGIKERren babesa  
izan dute.

## BILTZARRAK, JARDUNALDIAK

**1** Poster Zientzia eta Teknologia  
Fakultateko Ikerketa Jardunaldietan  
(2025eko apirilaren 9an eta 10ean).



## ZERBITZUAK

**1545** zerbitzu egin  
dizkiete unibertsitateko  
kideei.


**652** zerbitzu egin  
zaizkie Zientzia,  
Teknologia eta  
Berrikuntzarako Euskal  
Sareko 21 erakunderi.



**2** jarduera akreditatuta  
ISO 17025 arauarekin.

**1064** zerbitzu egin dizkie  
ingurune sozioekonomikoari.

**43** zerbitzu  
18 unibertsiteri (horietako  
bat atzerrikoa).



**3** lankidetzak kalitatearen  
arloan (ISO 17025).  
Horietako bi EHUko  
sailekin eta bat Valenziako  
Unibertsitatearekin.

**149** entitate publiko  
eta pribaturi eman zaie  
arreta.



**17** unitate ziurtatuta  
ISO 9001 arauarekin.

**8** zerbitzu daude jasota  
Q-epeak ziurtatutako  
zerbitzu kartan.

## ANTOLATUTAKO EKITALDIK ETA HEDAPEN ZIENTIFIKOA



**1** albiste eta agerpen komunikabideetan eta prentsa idatzian.

**18** ikastaro eta prestakuntza jardueraren eskaintza. Nahierako 3 ikastaro.

**213** prestakuntza eta zientziaren hedapen ordu.

**334** pertsonaren irteera SGikerretik trebatuta.

**2** irratsaio.


**11** dibulgazio bisita ingurune sozioekonomikoko pertsona eta erakundeei.

**10** urtetik gora daramatzagu lankidetzan lantokiko prestakuntza programarekin (FCT), lanbide heziketako (LH) ikasleentzat. Aurten zenbait zentrorako (Txurdinaga LHII, Erreka Mari LHII, eta Calasanz ikastetxea) 4 pertsonak egin dituzte praktikak gure laborategietan.

**1** emanaldi telebista programa batean.

**5** ekarpen biltzar eta bileretan.

# AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK



## SGIkerren AZPIEGITUREN HOBEKUNTZA ETA EGOKITZAPENA

2025ean SGIkerren azpiegituretan egindako hobekuntza hau izan da: euste biologikoko 2. laborategia prestatzea, oxigeno-gabezia detektatzeko sistema bat abian jarrita, besteak beste.

Adierazgarria da biltegiatze espazio bat prestatu dela "Martina Casiano" plataforma teknologikoko 1. sotoan, eta funtsezko elementu bihurtu da ekipamendu zientifikoaren ekonomia zirkularreko programa garatzeko.

## EKIPAMENDUAREN EGUNERAKETA

2025 ekitaldiaren bereizgarria izan da ekipamendu handia erosi dela, ekipamendu zientifiko-teknikoa erosteko 2024ko deialdian aurkeztutako 6 proiektuen aldeko ebaluazioaren ondorioz. Proiektu horiek Ikerketa Zientifiko Teknikoa eta haren Transferentzia Sustatzeko Estatuko Programako Azpiegitura eta Ekipamendu Zientifiko Teknikoaren Estatuko Azpiprogramari dagozkio.

Inbertsioaren zenbatekoak 2025 eta 2026 ekitaldietako SGIkerren aurrekontua konprometitu du; beraz, 2025ean 3 ekiporen lizitazioa hasi da, eta gainerakoena (3) 2026 ekitaldirako utzi da. Jarraian, 2025ean lizitatu eta adjudikatu den ekipamendua zehazten da:

- Laser pulstu ultralaburren iturria, 20f azpitik sintonizagarriak, Laser Zerbitzu Orokorrerako (EQC 2024-008701-P).
- Polo laukoitzeko (anitzeko) masa espektrometroa (MS/MS Q-ICP-MS) excimer laserraren ablazio sistemari akoplatzeko, Geokronologia eta Geokimika Isotopikoaren Zerbitzurako (EQC2024-008740-P).
- Kromatografo likido ultralaster bati akoplatutako masa tribridoen espektrometroa, Bizkaiko Analisi Zerbitzu Zentraleko (SCAB) Lipidomika atalerako (EQC-2024-008615-P).

SGIkerrek, etengabeko hobekuntzaren aldeko apustu irmoa eginez, beharrezkotzat jo dute proteomika laginak prestatzeko plataforma bat jartzea, laginak prestatzeko denbora nabarmen murrizten baitu, bai eta Bizkaiko Animaliategiko Zerbitzu Orokorrerako 2 hondakin gune erostea ere, animalien kaiolak garbitzeko lana arintzeko, horretan aritzen diren langileentzako ingurune seguru batean.

SGIkerrek, ikertzaileei beren jarduera garatzeko behar dituzten tresnak emateko asmoz, liofilizagailu berri bat sartu dute SCABen, eta errendimendu txikiko/ertaineko mahai gaineko sekuentziatzaile masibo bat eskuratu dute Genomika Zerbitzurako: Sekuentziazio eta Genotipo Azterketak. Ildo horretan, DNA Bankuaren Zerbitzu Orokorraren ekipamendu txiki guztia berritu da, eta honako hauek hornitu dira: zentrifugazio mikrozentrifuga, elektroforesi horizontaleko ontzia, plaka zentrifugatzailea...

Adierazi behar da SGIkerrek ekipamendu zientifiko-teknikoa eskuratzeko laguntzen 2025eko deialdian parte hartu dutela. Laguntza horiek Estatuko Programako Azpiegituren eta Ekipamendu Zientifiko Teknikoaren Estatuko Azpiprogramari dagozkio, hainbat jakintza arlotako 9 proiektuekin. Horrek erakusten du komunitate zientifiko eta teknologiko osoarekin duten konpromiso argia. Emakiden ebazpena 2026ko lehen hiruhilekoan izango dela espero da.

## EKIPAMENDUAREN EKONOMIA ZIRKULARRA

Erabiltzen ez den ekipamendua biltegitartzeko lokal handi bat izateak aukera ematen du ekipamendua zerbitzuen eskura denbora gehiagoz edukitzeko, eta, beraz, berriz erabiltzeko aukerak handitzen ditu.

EUEBren Ikerketako Laguntza Zerbitzuek egindako bileran beharrezkotzat jo zen lan sare bat sortzea, beste jarduera batzuen artean plataforma bat sortzeko matxuratutako

edo erabiltzen ez diren ekipoen eta piezen trukea eskaintzeko, katalogotik kanpo dauden baina funtzionatzen duten ekipoen bizitza luzatzeko xedez.

Uste sendoa dugu 2026an ekimen hori martxan jarriko dela eta Zerbitzu Orokorren funtzionamendu efiziente eta eraginkorragoa lortzeko ahaleginak batuko dituen estrategia baten partaide izango gara.

Jarraian, SGIkerren unitateak zehazten dira, 2030 ZTBPN jasotako trantsizioetako bakoitzarekin lerrokatuta:

<b>Teknologikoa-digitala</b>	<b>Energetikoa eta klimatikoa</b>	<b>Soziala eta sanitarioa</b>
Ikerketari aplikatutako informatika	Laser Laborategia	Animaliategia
	Geokronologia eta Geokimika Isotopikoa	DNA Bankua
	X Izpiak	Adierazpen Genikoa
	Polimeroen Mikroskopia	Sekuentziazioa eta Genotipatzea
	X Izpien Fotoelektronika (XPS)	Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan Proteomika
	Makroportaera, Mesoegitura, Nanoteknologia	
	Mikroskopia Elektronikoa eta Materialen Mikroanalisa	
	Neurri Magnetikoak	
	Mikroskopia Elektronikoa eta Materialen Mikroanalisa	
	Erresonantzia Nuklear Magnetikoa Fitotroia eta Negutegia	
	Zeharkako Unitateak	
Analisirako Zerbitzu Zentrala Raman-LASPEA laborategia		

SGIkerak, eskainitako zerbitzuak etengabe hobetzeko prozesu batean, bere unitateen kalitate programa batean murgilduta daude. Gaur-gaurkoz, 17 zerbitzu daude ziurtatuta UNE-EN ISO 9001:2015 erreferentzia arauan, prestakuntzaz gainera, 2 laborategi jarduera daude ziurtatuta EN-ISO 17025:2015 arauan eta 8 zerbitzu daude sartuta Zerbitzu Kartan, Q-pea bidez ziurtatuta.

# LANKIDETZA SAREA

Eskaintza zientifiko-teknologikoaren ondorioz, 2025ean 1.545 zerbitzu baino gehiago egin zaizkie EHUko ikertzaileei, eta 1.064 zerbitzu inguru sozioekonomikoko beste erakunde batzuei. Gainera, kultura zientifikoan trebatzeko eta hura sustatu eta zabaltzeko jarduera eta ekitaldietan lagundu dugu.

UPV/EHUz kanpoko erakundeei egindako zerbitzu guztien % 61,2 (652 zerbitzu) zuzenean Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) 21 erakunderekin egin dira. Zehazki, 2025. urtean, SGikerrek sare horretako eragile hauei eman diete laguntza zientifiko-teknologikoa:

- ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE
- CIC BIOGUNE BIOZIENTZIETAKO IKERKUNTZA KOOP. ZENTROA
- BIOMATERIALETAKO IKERKUNTZA KOOP. ZENTROA
- CEIT TEKNOLOGIA GUNEA ELKARTEA
- CIC NANOGUNE ELKARTEA
- MPC IKERKETA ELKARTEA
- BIOBIZKAIA OSASUN IKERKUNTZAKO INSTITUTUA ELKARTEA
- BIOGIPUZKOA OSASUN IKERKUNTZAKO INSTITUTUA ELKARTEA
- BASQUE CENTER FOR MACROMOLECULAR DESIGN AND ENGINEERING - POLYMAT FUNDAZIOA
- BIOTECHNOLOGY INSTITUTE SL, BTI
- CIC ENERGIGUNE
- AZTERLAN FUNDAZIOA
- AZTI FUNDAZIOA
- BCMATERIALS FUNDAZIOA
- BIOFISICA BIZKAIA FUNDAZIOA
- DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER FUNDAZIOA
- GAIKER FUNDAZIOA
- INATEC FUNDAZIOA
- JAKINTZA LANEZKO IKERKUNTZA FUNDAZIOA
- LORTEK S.KOOP.
- NEIKER - TECNALIA

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko unibertsitateetako ikertzaileentzako eskainitako eta egindako zerbitzuak nabarmendu behar dira. Kasu honetan, 46 zerbitzu egin zaizkie 18 unibertsitateri (horietako bat atzerrikoa).

# IKERKETAREN DINAMIZAZIOA



## Gizartera irekiak

UPV/EHUREN gizarte ekintzaren ikusgarritasuna da helburu estrategikoetako bat, eta, emaitza horrekin bat etorrita, SGikerrek urtero jasotzen dute enpresa sektoreari lotutako zuzendarien eta langileen bisita, bai eta irakasle eta ikasleena ere: masterreko ikasleak, nerabe gazteak eta ikertzaileak, oro har.

Hori horrela, 2025ean jasotako 11 bisitei esker, 115 pertsonak zuzenean ezagutu ahal izan zituzten gure instalazioak, ekipamendua, garatutako teknikak eta aplikazioak.

## Alfabetatze zientifikoa

SGikerrek argitaratzen duten urteko prestakuntza eskaintzari dagokionez, adierazi behar da 2025ean 14 prestakuntza ekintza egin direla (18 eskainitakoak, eta nahierako 3 ikastaro) ikerketarako teknologiek lotuta. Ikastaro horietan 219 pertsonak parte hartu dute eta, guztira, 213 eskola ordu eman dira.

Bestalde, ezagutza zabaltzeko beste jarduera batzuen artean, nabarmentzekoa da SGikerreko hainbat unitatek laguntza teknikoa eman dutela EHUko 11 masterretan, jarduera desberdinak egin baitituzte, hala nola laborategiko praktikak, bisitak, etab. Lagundutako masterren artean, unibertsitate arteko 3 master daude.



## Eskuratutako ezagutzaren hedapena

Komunitate zientifikoan zabalduago dauden jakintza zabaltzeko beste jarduera batzuk daude, eta horietan ere aktiboki parte hartzen dugu, hala nola biltzar, foro eta mintegietara joaten gara, SGIkerretan garatutako teknikekin zerikusia duten ekarpen zientifikoekin.

3 ekarpen egin ditugu biltzar eta bileretan.

## Asebetetzea

Gure lehentasuna da ikuspegi arduratsu, jasangarri eta gardenarekin arreta ematea UPV/EHUko ikertzaileei eta inguruko ehun sozioekonomikoari.

Erabiltzaileen premiei erantzuteko lan egiten dugu, eta etengabeko eraldaketa eta aldaketa testuinguru batera egokitzen gara, erantzun integratu bat bilatuz, eta hori asebetetze indize handietan ikus daiteke: eskuratu daitezkeen 5 puntutatik 4,80 lortu baititugu.

# ESKERTZA

**Eusko Jaurlaritz.**

**Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa.  
Estatuko Ikerketa Agentzia.**

**EGEF eta Europako Gizarte Funtsa laguntza programak.**



**UPV/EHUko Ikerketako Zerbitzu Nagusiak (SGIker) kalitate programa batean murgilduta daude. Horren barruan, ikerketaren laguntza unitateak UNE-EN ISO 9001 arauaren irizpideen arabera ziurtatzea aurreikusten da, baita ingurumenaren arloko (lagin organikoaren oinarriko analisia) eta auzitegi arloko (ahaidetasun biologikoko probak) saiakuntzak UNE-EN ISO/IEC 17025 erreferentziazko aruari jarraikiz akreditatzea eta zerbitzu kartak abian jartzea ere.**



**Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak – SGIker  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza  
UPV/EHU**

Bizkaiko Campusa  
Errektoretza eraikina, 2. solairua  
Sarriena auzoa z.g.  
Leioa, 48940 - Bizkaia  
Tel.: 94 601 50 50  
Webgunea: [www.ehu.es/sgiker](http://www.ehu.es/sgiker)